



Fantasia eta beldurra Intxaurrondon

Fantasia eta beldurrezko zinemaren topaleku bihurtuko da Intxaurrondoko Gabriel Celaya plaza. Hasteko, Ridley Scott zinemagilearen "Alien, el octavo pasajero" maisulan klasikoa dastatzeko aukera izango da. Andrei Tarkovsky-ren "Solaris" zientzia-fikziozko perlatxoaren remake berezia ere eskainiko da bertan. Fantasia intelektuala gogoko ez dituenentzat, aldiz, "Underworld" eta "X Men 2" film komertzial arrin eta entretenigarriak aproposak gerta daitezke.

Abuztuak 14: "Alien, el octavo pasajero". Zuz: Ridley Scott. (AEB, 1979).

Abuztuak 15: "Solaris". Zuz: Steven Soderbergh. (AEB, 2003).

Abuztuak 16: "Underworld". Zuz: Len Wiseman. (AEB, 2003).

Abuztuak 17: "X Men 2". Zuz: Bryan Singer. (AEB, 2003).

Kresal usaineko zinema Grosen

Itsasoa izango da Groseko Kurasaaleko tenazan eskainiko den zinemaren protagonista. Filmak, gainera, jatorrizko bertsoan pantailaratuko dituzte. Surf irudi freskagarriak zinema-klasikorik onenarekin uztartuko dira. Jacques Tati maisu frantziarraren "Las vacaciones del Señor Hulot" komedia finaz gain, Vincente Minelli zinemagilearen "El pirata" mitikoa ere izango da ikusgai. Piraten zinema eta muskala nahasten dituen pelikula polita da Judy Garland eta Gene Kelly aktoreek jokatzeko dituzte rol nagusiak. Musika Cole Porter handiarena da.



Uztailak 30: Surf Film Festival.

Uztailak 31: "Las vacaciones del Señor Hulot". Zuz: Jacques Tati (Frantzia, 1951).

Abuztuak 1: "El pirata". Zuz: Vincente Minelli (AEB, 1948).



Zinemarik errealistena Amaran

Azken sasoiari filmatutako dokumentalik onenekin gozatzeko aukera izango da Amara Berriko Araba parkean. Michael Moore polemikoaren "Bowling for Columbine" apartaz gain, Julio Medem zinemagile donostiararen "La pelota vasca. La piel contra la piedra" hunkigarria ere eskainiko baita. "Duela bi urte Berlingo Hartza bereganatu zuen... Domingo sangriento" gordina ere izango da ikusgai. Tom McCarthy zinemagile independentearen "Vías cruzadas" harribitxi sentiberak birbilitzen du Amarako zinema eskainiza orakargaria.

Abuztuak 25: "Bowling for Columbine". Zuz: Michael Moore (AEB, 2003).

Abuztuak 26: "Domingo sangriento". Zuz: Paul Greengrass (BH / Irlanda, 2002).

Abuztuak 27: "La pelota vasca. La piel contra la piedra". Zuz: Julio Medem (EH, 2003).

Abuztuak 28: "Vías cruzadas". Zuz: Tom McCarthy (AEB, 2003).

Zinemarik komertzialena Antiguán

Zinema komertziala eta kalitatezko zinema antonimoak dira sarri. Roland Emmerich alemaniarren "El día de mañana" hanpatua da horren lekuko. Kevin Costner ere gainbeheran dago. Baina "Open Range" western sotila da azken sasoiari zuzendu

duen pelikularik onena. Antiguako frontoian ikus ahal izango den filmik interesgarriena, ordea. "El americano impasible" da ezbalrik gabe. Graham Green idazlearen eleberririk bikainaren zinema egokitzearen iradokitzailea.

Abuztuak 4: "Open Range". Zuz: Kevin Costner (AEB, 2003).

Abuztuak 5: "El día de mañana". Zuz: Roland Emmerich (AEB, 2004).

Abuztuak 6: "El americano impasible". Zuz: Phillip Noyce (AEB, 2002).

